## 2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA

**Programa:** 72 KULTURA PLAN ESTRATEGIKOA

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE

**Programa:** 72 PLAN ESTRATÉGICO DE CULTURA

## SAILAREN MEMORIA

### I. MEMORIA

2020ko gastuen aurrekontuaren aurrekontu aginduaren barruan, eta kultura plan estrategikoaren jarduketa esparruan, zehaztean, plana garatzeko eta zabaltzeko jardueren finantzazio lerro bat ezarri zen.

Arabako kultura errealitatearen zati handi bat talde eta kolektiboen ekimenei esker da. Izan ere, azken urteotan era guztietako makina bat ekitaldi, erakusketa eta kultur ekintza programatu, bere gain hartu eta garatu dute beren lanari esker.

Haien dibertsitatea eta inklusioa kontuan hartuz, kultura jarduerak aurrera eramateko orduan, komeni da haien programazioa ekimen haietan parte hartzen duten erakundeen, kolektiboen eta pertsonen nahiz herri administrazioen arteko lankidetzan oinarrituz prestatzea, ikuspegi osagarri eta integratzailearekin.

2020an zehar, COVID-19ak eragindako pandemia agertu izanaren eta hark ezarritako murrizketa sozialen ondorioz jarduera kulturalean izan duen eragin handiaren urtea izanik, honako zeregin hauei ekin zaie:

- AKPEren Koordinazio Orokorraren eta Jarraipenaren Mahaia bideodeiaz biltzeko deia egin da, 2020ko maiatzean.
- Trukea” finkatu, udal, kuadrilla eta AFAko kultura teknikarien artean komunikatzeko tresna digitala dena.
- Ibilbidean, Arabako udal eta kuadrilletako kultura teknikari eta buru politikoentzat zuzendutako prestakuntza programa. 2020ko otsailean saio bat egin zen. Ondoren, programa hori eten behar izan da pandemiagatik.
- KulturAraba Bulegoa, Arabako kultura sektoreari

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

En el marco de la ordenación presupuestaria del presupuesto de gastos de 2020, y dentro del ámbito de actuación del Plan estratégico de cultura, y en su concreción, se estableció una línea de financiación de actividades de desarrollo y despliegue del plan.

Una gran parte del hecho cultural alavés se debe a la iniciativa de grupos y colectivos que, con su dedicación, han programado, responsabilizado y desarrollado eventos, demostraciones y actos culturales de muy diversa índole a lo largo de los últimos años.

Las actuaciones culturales, por su diversidad e inclusión, demandan que su programación se haga siempre bajo la óptica de la colaboración con las diferentes administraciones públicas, instituciones, colectivos y personas involucradas, con una perspectiva colaborativa e integradora.

Durante 2020, año que ha estado atravesado por la irrupción de la pandemia provocada por el COVID-19 y que ha supuesto una seria afectación a la actividad cultural derivada de las restricciones sociales impuestas, se han abordado las siguientes tareas:

- Convocada reunión que reúne por videoconferencia a la Mesa de Coordinación General y Seguimiento del PECA en mayo de 2020.
- Consolidación de “Trukea”, herramienta digital de comunicación cotidiana entre personas técnicas de cultura de ayuntamientos, cuadrillas y DFA.
- Ibilbidean, programa de formación dirigido a técnicos y técnicas de cultura de los diferentes ayuntamientos y cuadrillas de Álava y responsables políticos. Realizada una sesión en febrero de 2020. Posteriormente ha habido que interrumpir este programa por la pandemia.
- Consolidación del proyecto KulturAraba Bulegoa,

laguntzeko eta aholkatzeko bulegoa, sendotu da, Gasteizko Udalarekin eta Laboral Kutxarekin koordinatuta.

- KulturAraba web orriaren diseinua hobetzen jarraitu da.
- Proposamen interesgarriekin kolaboratu, esaterako 2020ko Irudika Nazioarteko Ilustrazio Topaketa Profesionalarekin, zeina modu birtualean egin baitzen; horrelako egitasmoek lurraldearen kultura esparrua gainditzen dute.
- Horrez gainera, kultura jarduerak finantzatzen kolaboratu da, eta hala, Arabako Lurralde Historikoa sustatu da, jardueren sustatzaileekin kolaborazioan.
- Lau laguntza eman dira musika eta eszena arteetako hezkuntza jarduerak egiteko.
- Antzerki Ibiltaria Araban zehar programa, 500 biztanletik beherako udalerrietarako. Zortzi emanaldi.
- HaziAraba, estimulazio artistiko goiztiarreko landa jaialdia. Zortzi udalerri.
- GazteFilm Fest haur eta gazteentzako zinema jaialdi ibiltaria. Hiru herri.

Planak ezarritako indarraldiaren amaierarekin bat etorriz, Arabako Kulturaren 2017-2020ko Plan Estrategikoa garatzeko eta ezartzeko prozesuaren azken ebaluazioa kontratatzeko beharra zehaztu zen, gehienez 10.000,00 eurokoa, BEZa barne.

Ordura arte, planaren jarraipenerako hainbat ebaluazio eginak ziren, baina, hala ere, komenigarritzat jo zen kanpoko azken ebaluazio bat egitea, atzera eta aurrera begirako ikuspegia uztartzeko helburuarekin, egin dena aztertu eta baloratu ahal izateko, helburuetan, testuinguruetan, espero ziren emaitzetan, prozesuetan edo ondoriozko eraginetan oinarrituta, eta etorkizuneko plangintza hobetzeko baliagarriak izan daitezkeen alderdi guztiak detektatzeko.

Hiru enpresa gonbidatu ziren Arabako Kulturaren Plan Estrategikoa ebaluatzeko proposamenak aurkez



oficina de acompañamiento y asesoramiento al sector cultural alavés, en coordinación con el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y Laboral Kutxa.

- Continuación en la mejora del diseño de la web KulturAraba.
- Colaboración con propuestas de interés, como el Encuentro Profesional Internacional de Ilustración Irudika 2020, celebrado en modo virtual, que trascienden el ámbito cultural del Territorio.
- Asimismo, se ha colaborado en la financiación de actividades culturales que han redundado en la promoción del Territorio Histórico de Álava, en colaboración con sus promotores.
- Otorgadas cuatro ayudas a acciones formativas en artes escénicas y musicales.
- Programa de Teatro Estacional por Álava para municipios menores de 500 habitantes. Ocho representaciones.
- HaziAraba, festival rural de estimulación artística temprana. Ocho municipios.
- Itinerancia del festival de cine infantil y juvenil GazteFilm Fest. Tres pueblos.

Coincidiendo con el fin del plazo de vigencia establecido por el Plan se determinó la necesidad de contratar la evaluación final del proceso de desarrollo e implementación del Plan Estratégico de Cultura de Álava 2017-2020, por un importe máximo de 10.000,00 €, IVA incluido.

Hasta ese momento ya se habían desarrollado varias evaluaciones de seguimiento del Plan, pero aun así se estimó conveniente realizar una evaluación final externa, con el objetivo de conjugar una mirada retrospectiva y prospectiva que permitiera analizar y valorar aquello que se ha hecho en base a objetivos, contextos, resultados esperados, procesos o impactos resultantes y detectar todas aquellas cuestiones que pudieran ser de utilidad para la mejora de una futura planificación.

Se invitó a tres empresas, para que presentaran sus propuestas para la evaluación del Plan Estratégico de

zitzaten: C2+i/Conexiones improbables; Kultiba, cambios culturales; eta Teklak, Estudio de Comunicación y Audiencias.

Kultiba, cambios culturales eta Teklak, Estudio de Comunicación y Audiencias enpresek proposamen bana aurkeztu zuten, eta ekainaren 1eko 98/2020 Foru Aginduaren bidez KULTIBA KOOP. ELK. TXIKIA enpresari esleitu zitzaion Arabako Kulturaren 2017-2020ko Plan Estrategikoa garatzeko eta ezartzeko prozesuaren ebaluazioa, 2020ko abenduaren amaieran entregatu zuena.

2020an denean gertatu den bezala, ebaluazio prozesua oso baldintzatuta egon da pandemiaren ondorioz, eta lan metodologia egoerak ezarritako murrizketetara egokitu behar izan da, bilera presentzial gehienak datuak biltzeko beste tresna batzen bidez egin baitira.

Oraindik ere aztertzen jarraitzen dugu aurkeztutako ebaluazioa. Hurrengo urratsa da ebaluazio hori partekatzea Planaren Jarraipen Mahaiarekin, elkarrekin erabakitzeko zein den hartu beharreko biderik egokiena.

## II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

Arabako Kulturaren Plan Estrategikoa hedatzea.

Betetze maila: % 100



Cultura de Álava: C2+i/Conexiones improbables, Kultiba, cambios culturales y Teklak, Estudio de Comunicación y Audiencias.

Kultiba, cambios culturales y Teklak, Estudio de Comunicación y Audiencias presentaron sendas propuestas y por Orden Foral 98-2020, de 1 de junio se adjudicó la evaluación del proceso de desarrollo e implementación del Plan Estratégico de Cultura de Álava 2017-2020, a KULTIBA KOOP. ELK. TXIKIA, que entregó la evaluación a finales de diciembre de 2020.

Como todo en 2020, el proceso de evaluación ha estado muy condicionado por la pandemia y se ha tenido que acomodar la metodología de trabajo a las restricciones marcadas por la situación, sustituyendo la mayoría de las reuniones presenciales por otro tipo de instrumentos de recogida de datos.

A fecha de hoy seguimos estudiando la evaluación presentada. El siguiente paso es compartir dicha evaluación con la Mesa de seguimiento del Plan para conjuntamente decidir cuál es el camino más adecuado seguir.

## II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Despliegue del Plan Estratégico de Cultura de Álava.

Grado de cumplimiento 100%